

## **HILTEGIA EZ ITXI**

### **PRENTSA OHARRA**

Aurreko urriak 13an Hiltegia Ez Itxi Plataformako hainbat kide Laudioko Alkatearekin eta bilera horretako aukeratu zuen taldearekin bildu ginen. Bertan Laudioko Udal Hiltegiko zerbitzuari berriro ez ekiteko beraien erabakia jakinarazi ziguten.

Arrazoi nagusia beharrezkoa ikusten duten urak arazteko sistemaren kostu handia da eta honek sortzen omen duen proiektuaren bideraezintasuna. Urak arazteko sistemaren kostua 900.000 € inguruan kokatzen dute.

Hiltegia Ez Itxi plataformatik honako hau adierazi nahi dugu:

- Jasotako azalpena hiltegia ixteko erabaki politikoa argudio teknikoen atzean ezkutatzeko saiakera iruditzen zaigu. Hiru hilabetetan, denok izan gara itxiera horren ustezko arrazoiei buruzko bertsio desberdinen lekuko, eta bakoitza aurrekoaren desberdina izan da, gaur egunekora heldu arte.
- Ez dugu ulertzen zer kudeaketa-mota egin den 2019an 260.000 € baino gutxiagoko hasierako konponbide batetik (Eusko Jaurlaritzak konprometitutako eta gauzatu ez den partida) bi urte geroago 900.000 € ko soluzio batera igarotzen denean. Ez da zaila igartzea tarte horretan aztertu nahi izan ez diren hainbat irtenbide posible egon behar direla.
- Hori horrela balitz, Udal Hiltegiari buruzko erabaki-paralisi argia utziko lukeela agerian, egungo egoerara eraman gaituena.
- Egoera hasieratik hiltegia behin betiko itxierarako pentsatuta dagoela, eta, horretarako, era guztietako argudioak erabiltzen ari dela.

Plataforma honetatik honako hausnarketa eta proposamen hau ere egiten dugu:

- Etorkizunerako aurkeztu diguten konponbidea ez du zentzurik, bitartean sakrifizio-zerbitzuari eusten ez bazaio. Ustiategi txikien egoera hain da larria, non litekeena baita aukera hori gauzatzen denerako erabiltzen duen ustiategirik ez geratzea.
- Zerbitzuaren ezinbestekotasuna hain ikusten dugu horrela non baserritarrok prest gaude zerbitzua kudeatzeko, eta, horretarako, Laudioko Udalarari beste bilera bat eskatuko diogu instalazioak, sortzen ari garen, baserritarren elkarte bati lagatzeko edo alokatzeko. Elkarte honek instalazioen behin-behineko kudeatzailea izango litzateke, zerbitzua lehenbailehen berrabiarazi dadin.